

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 578/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Behin betiko onespena ematea Zalduondoko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketari**

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 13ko 526/2024 Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion Zalduondoko udalerrirako dagokion eta ondasun higiezinaren gaineko zergari loturik dagoen hiri lurzoruen mugaketari, zeina hiri antolamendurako plan orokor berria jasotzeko egin baita.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 11. artikuluen 4. apartatuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar die dagokien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean egoki jotzen dutena jakinaraz dezaten. Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren inguruan.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 313/2020 Erabakiak behin betiko onetsi zuen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Zalduondoko udalerrirako hiri ondasun higiezinaren lurzoruen eta eraikuntzen balioztapen txostena.

Horren ondorioz, hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa eman behar zaie udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 313/2020 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatu arduradunak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea, honekin batera doazen planoen arabera, Zalduondoko udalerrirako dagokion eta ondasun higiezinaren gaineko zergari loturik dagoen hiri lurzoruen mugaketa zeina hiri antolamendurako plan orokor berria sartu dela jasotzeko egin baita.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluen 2.b) apartatuan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten herrigunetik kanpoko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa ematea udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 313/2020 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Laugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie, Hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duen Diputatu Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Zalduondoko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak 11. artikulua 5. apartatua eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun,  
Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**M<sup>a</sup> JOSÉ PEREA URTEAGA**